

ISTORIOAK

IDAZTEN IKASTEKO

EMAN BEHARREKO

PAUSUAK

1. PENTSATU.



- Zer idatziko dut? gaiak zerrendatu.
- Zein da gehien gustatzen zaidana? Zergatik?
- Irakurleek zeinekin gozatuko dute gehiago?
- Nire idatziaren gaia aukeratu dut.
- Zein izango da nire papera istorioan ?
 - ✚ Narratzaile protagonista (lehengo pertsonan kontatuko dut)
 - ✚ Narratzaile lekukoa (hirugarren pertsonan kontatuko dut)

2. Kontakizunaren urratsak prestatuko ditut

➤ Hasierako egoeraren aurkezpena:

- ✚ Pertsonaiak dira:
- ✚ Pertsonaien ezaugarriak dira.
- ✚ Non eta noiz gertatzen dira gertaerak.

➤ Zerbait gertatu da: korapiloa


- ✚ Sortutako arazoa da ...
- ✚ Arazoaren aurrean, pertsonaien jokamoldea .
- ✚ Pentsatutako irtenbideak dira:
- ✚ Burutuko dituzten ekimenak dira:

➤ Arazoaren konponbidea:


- ✚ Arazoa honela konpontzen da:
- ✚ Arazoa ez da konpontzen eta pertsonaiak beste ekintza hau burutzen du.

➤ Izenburu egokia bilatzen:

- ✚ Izenburu batzuk pentsatu.
- ✚ Egokiena aukeratu.



3. Istorioaren antolaketa



4. Narrazio testuzo ideaiak antolatzeko gida

- Nola hasiko da nire istorioa?
- Aurretik pentsatu eta prestatutako ze ideiak joan daitezke paragrafo berdinean?
- Gertakizunak zein ordenetan aurkeztuko ditut?
- Zer uzten dut amaierarako?



5. Orain lehenengo zirriborroa egingo dut.

Idea berri bakoitzaren hasieran pentsatu:

- Argi geratzen da?
- Esan nahi nuen guztia esan dut ?
- Argigarria izan daitekeen zerbait gehitu dezaket



6. Idatzitako birpasatu.

Idazlana emaitutakoan irakaur ezazu eta esan zein pasarte gustatzen zaizun gehien eta zein gutxien. Ondoko galderak lagungarri izando dituzu:


- Argi geratzen da istorioaren antolaketa, gertaeren aurkezpena ,korapiloa eta amaiera?
- Zuzena al da istorioaren ZERGAITIA.
- Hasteko era zuzena da? Zerbait alda dezaket?
- Gaiz aldatzen dudanean parágrafoz aldatu dut? Paragraforen bat alda nezakeen?
- Amaiera interesgarriagoa izan dadin zerbait gehi edo ken dezaket? Zer?
- Pertsonaien deskribapenan zehatzak dira?
- Argi geratzen da nire lekua istorioan? (narratzaile-protagonista, narratzaile-lekuko)
- Izenburua eta mamia bat datoz?



7. Kontakizuna hobe dezaket. Kontuan hartuko ditut :

Esamoldeak eta ortografia:

- Birpasatu ortografia akatsak konpontzeko.
- Hitzen bat errepikatu dut edota ez da egokia? Zeintzuk?
- Zein hitz eta esamolde ezagutzen ditut errepikatutakoak ordezkatzeko?
- Ortografia ikurren bat txarto erabilia dago?



8. Illuuuuuuffiiiiiiiiiii. Amaitzeko izenburua birpasatu

Pentsa ezazu izenburua erakargarria den besteengan irakurtzeko gogoa pizteko modukoa.

